DEUSTUKO IKASTOLA GURASO ELKARTEA

bige Bizkaiko guraso elkartea

Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO

Guraso Eskola 2021:

Familia agurgarriak:

Guraso Elkarteak eta BIGEk atsegin handiz hitz egiten dizuegu Guraso Eskolan parte hartzera gonbidatzeko. Informazio, prestakuntza eta eztabaidarako gune horretan, gure seme-alaben prestakuntza-prozesuan gehien kezkatzen gaituzten gaiak landuko ditugu.

Jarduera urtarriletik maiatzera astean behin egingo dugu, pertsona espezializatu baten laguntzarekin (psikologoa, pedagogoa…). Horrek jarraibideak eta pistak emango dizkigu familiek gure hezkuntza-trebetasunak modu autonomoan gara ditzagun. Kontua ez da "errezeta" gisa irtenbide itxiak ematea, familia bakoitza, seme eta alaba bakoitza desberdinak baitira, eta etengabeko bilakaeran baitaude.

Hauek dira lantzen diren gaikako arloetako batzuk:

- ***Hezkuntza-ereduak***
- ***Arauak eta mugak***
- ***Emoziozko hezkuntza***
- ***Familiako komunikazioa***
- ***Gatazken konponbidea***
- ***Jazarpena***
- ***Sexu-hezkuntza***
- ***Teknologia berriak***
- ***Ikasteko ohiturak***
- ***Nutrizioa eta elikadura***
- ***Kontsumo problematikoen prebentzioa***

Gurasoen eskolak Bizkaiko eskola eta institutu ugaritan egiten dira, eta balorazio bikaina egiten dute beren kalitateagatik eta berrikuntzagatik, bai gurasoen aldetik, bai irakasleen aldetik.

Prestakuntza on-line egingo da, eta egoera orokorrak ahalbidetzen badu, aurrez aurre egin ahal izango ditugu. Eguna eta ordua taldea sortzen denean guztion artean erabakiko dugu.

Parte hartu nahi baduzu, bete formulario hau: **hemen.**

Edozein zalantza argitzeko, idatzi helbide honetara: **kultura@deustukoikastola.eus**

Zatoz eta parte hartu!

--
Kultura Batzordea
www.deustukoikastola.eus